



Autoikaskuntza: zenbai eztabaida-gai

Jon Antxia Uribe-etxebarria

Gero eta ezagunagoak, eta, erabiliagoak dira teknologia berriak hizkuntzen irakaskuntzaren alorrean. Bestalde, estu loturik ageri zaigu gaur egun autoikaskuntzaren kontzeptua teknologia horiei. Eta gero eta gehiago dira, halaber, sistema horren bidez ikasten ari diren ikasleak. Beasaingo udal euskaltegian irakasle diharduen artikulugilearen iritzia da ez dela oraindik lortu autoikaskuntzan aurrez aurreko eskola-saioetarako metodologian lortu den garapen-maila. Bere proposamen nagusia da, merezi duela tokian tokiko ingurunea kontuan hartu eta BOGA euskarria alderdi komunikatibotik indartu eta osatu, sistema horretatik ari den ikaslea hizkuntza erabiltzaile osoa bihurtzeko bidean.

Sarrera Azken urteotan, autoikaskuntzak indarra hartu du hizkuntzen irakaskuntzan; eta, nola ez, baita euskararen irakaskuntzan ere. Horretan, du-darik gabe, zirikusi zuzena izan dute teknologia berrien zabalkundeak ez ezik gizartean berean izandako aldaketek ere. Hala ere, ikasleen artean askok, gure euskaltegian bai behintzat, ezinbestean egin behar izan dute autoikaskuntzaren hautua; hots, aurrez aurreko klaseetara etortzerik ez eta, beste biderik ez dute izan euskara ikasteko. Dena dela, erreala da horrelako ikas-metodoek hartu duten goranzko joera, eta gurean ere nabaritu dugu bilakaera hori. Izan ere, autoikaskuntza-zerbitzuan diharduen ikasle-kopurua urtetik urtera emendatuz joan da.

Dena dela, uste dut kontuan hartu beharrekoa dela, autoikaskuntzaren birtartez irakasteko aukera eskaintzen hastea erabaki zenean, zein eskura geneukan euskaltegiok zerbitzu hori ahalbidetzen zuen sistema: BOGA.

Eskua luzatu eta hartu besterik ez genuen. Hala, uste genuen zerbitzu hori egoki emateko moduan geundela, zati handi bat egina baitzetorkigun; eta BOGAren gainean oinarritu genuen autoikaskuntza.

Ez dugu ahaztu behar –oso kontuan hartzekoa iruditzen baitzait– gure euskaltea txikia dela eta baliabidez nahikoa justua. Ordutik eginiko bideak ikusarazi digu autoikaskuntzan ere arlo didaktikoak ere bere bidea egin beharra duela eta sakonetik aztertu; tradizioz, aurrez aurreko eskola-saioetarako egin dugun bezala.

Azpipimarratzekoa iruditzen zait, gurean, aurrez aurreko jardunak eta autoikaskuntzak hartu dituzten bideak. Itxuraz modernoagoa dena zaharkitua ikusten dugu, eta aurrez aurreko klaseetan, berriz, badugu aurrera goazen sentimendua, nahiz eta ez den guk nahi genukeen hainbat aitzineratzen.

Hein handi batean, irakasleon errua ere bada gertatua, BOGAren eskua sartzeko aukera handirik ere ez genuenez, indarrak aurrez aurrekoetara bideratu baikenituen, eta gure jarduna ohiko eskola-saioekin lotu. Ondorioz, didaktika-arloari buruzko gogoetetan, bigarren mailan geratu zen autoikaskuntza. Baina autoikaskuntzak hartu duen garrantzia eta pisua kontuan izanik, horrela jokatzeari utzi beharko genioke; bestela, geure buruaren kontra ariko ginateke-eta.

BOGA aplikatzearen aldeko apustuak, ikusi dugunez, praktikotasunarekin lotura handiagoa izan zuen beste ezerekin baino. Horrek ekarri du, nire ustean, autoikaskuntza, gure euskaltegian, uharte bakartu bilakatu izana. Hala, nago, ikuspegi didaktikoari dagokionez, azken ikasurteetan aurrez aurrekoetan izan den bilakabidea motelagoa izan dela autoikaskuntzan.

Egia da Moodle plataforma gehitu dugula, eta hori aurrerapausoa izan dela; baina teknologia-arloan egin dugun urratsaren parekorik ez da izan didaktika-arloan. Teknologia berriena darabilgu geure lanean; baina irakaskuntzaren ikuspegi zaharra eskaintzen jarraitzen dugu.

Aurrez aurreko saioak

Aurrez aurreko eskoletan, aldiz, bilakabidea argiago ikus daiteke; bilakabidea izan delako, besteak beste. Lehen esan bezala, bada gure artean metodologiaren gainean hausnartzeko joera naturala. Eta saiatu gara irakasle-batzetako gogoetak aurrez aurreko eskola-saioetan islatzen eta ikasgeletara eramaten. Horretaz ohartzeko, duela zenbait urtetako materiala eta egungoa erkatu besterik ez dugu.

Kezka batek akuilatzen gintuen: gure jarduna hobetzea. Horrek, jakina, erabakiak hartzera bultzatu gaitu. Ez pentsa, hala ere, beti asmatu dugunik. Ildo horretan kokatu beharko genuke Beasaingo Udal Euskaltegian didaktikaren inguruan abiarazi dugun azken saioa. Ohartzen ginen gure kurrikuluak ez gintuela erabat asetzen eta beste urrats bat egin behar genuela aurrerantz.

Ekinbide horretan, HABEra jo genuen laguntza eta aholku eske. Horrela, Luis Mari Txabarri HABEko teknikariarekin zenbait saio egin genituen. Haren gomendioei jarraikiz, beheko mailetatik hasia deliberatu genuen: A1 mailatik hain zuzen ere. Saio horietan ideia berri batekin egin genuen topo, ekarpen handia egin digun ideia: ekintza komunikatiboa.

Europako Erreferentzi Marko Bateratuak hauxe dio hizkuntzaren erabilera eta ikaskuntzaz ari delarik:

Hizkuntzaren erabilerak –ikaskuntza ere barne hartzen du–, erabiltzaileak gizabanako eta gizarte-eragile diren aldetik, gaitasun orokor zein komunikazio-gaitasun batzuk garatzen dituzten pertsonen ekintzak hartzen ditu bere baitan. Pertsonak, hizkuntz ekintzak gauzatzeko, testuinguru ezberdinetan eta baldintza eta muga ezberdinen menpe erabiltzen dituzte eskuragarri dituzten gaitasunak. Ekintza horiek gauzatzeko prozesu batzuk abiarazi behar dituzte, arlo espezifikoetan gai jakin batzuei buruzko testuak ekoizteko eta jasotzeko, eta egin beharreko atazak gauzatzeko egokien irizten dieten estrategiak erabili behar dituzte. Ekintza horien gainean duten kontrolaren bidez, partehartzaileek beren gaitasunak sendotu edo aldatu dituzte.

Ikuspegi komunikatibotik begiratuta, ekintza komunikatiboa nozio garrantzitsua da. Hizkuntzaren bitartez egiten ditugun gauzetan pentsatzen jarri gaitu. Zer egiten ikasi beharko luke A1 mailako ikasleak? Hona hemen zenbait adibide:

- Leku, ordutegi, data, prezio, neurri, kopuruei buruz galdetu eta erantzun
- Zerbait dagoen, baden edo dakien galdetu eta erantzun
- Datu pertsonalei buruzko informazioa eskatu eta eman
- Pertsonak, lekuak eta gauzak deskribatu
- Zerbait non eta noiz gertatzen den adierazi
- ...

Baina nola lortuko dugu ikaslea jarduera horietan ondo moldatu dadin. Egoera horietan trebatu nahi badugu ikaslea, zein irizpideren gainean lan egin behar dugu? Zer eskaini behar diogu geure ikasleari? Adibidez, zer behar du ikasleak leku bat –bere etxeko gela bat, esaterako– egoki deskribatu nahi badu?

Lehenik, ikaslea zein testuingurutan ibiliko den adostu beharko dugu; hots, ekintza komunikatiboaren osagaiak zehaztu. Gelaren deskripzioa ekintza komunikatibo baten barruan kokatu beharko dugu.

Ekintza komunikatiboaren osagaiak zehazteak helburua definitzen laguntzen digu, eta, bide batez, ikasleari eta irakasleari jarduera horretan hobeto pentsatzen eta ardatzen ere bai. Saiatuko gara jarduera erreala aurkezten, edo ahalik eta errealean, eta ikaslearengandik gertukoena.

Demagun, A1 mailatik atera gabe, deskripzioa landu nahi dugula, eta –adibidea baino ez da– ikaslea bere gelaren deskripzioa egiten trebatu nahi dugula. Baina kontuan hartu beharra daukagu ez dugula inoiz deskripzio hutsa egiten bizitza errealean. Horrexegatik da garrantzi handikoa, le-

henbizi, testuingurua zein izango den zehaztea; ikasleak jakin dezan zein komunikazio-egoeratan txertatuko duen deskripzioa, zein funtzio izango duen deskripzio horrek.

Sistema linguistikoaren zatiak ere beharko ditu ikasleak, horretan ez dago dudarik. Dena dela, ekintza komunikatiboa izango dugu helburu. Besteak beste, honako edukiak behar ditzake ikasleak deskripzioa behar bezala osatzeko:

1. Lexikoa: gelari dagokiona.
2. Adjektiboak.
3. Adjektiboen graduatzaileak.
4. Espazioa antolatzeak: posposizioak... Dago / daude aditza.
5. Formak eta koloreak.
6. Zertarako den adierazi.
7. Zenbakiak.
8. Materiala: Zerezkoa da / Zerez eginda dago.
9. Aditza: Daukat / dauzkat (dut / ditut).
10. ...

Horrez gain, ez dugu ahaztu behar diskurtsoa eratu behar duela, eta ez zerrenda hutsa. Komunikazio-ekintza horren emaitza testua izango dugu; ekintza komunikatiboari dagokion testua, jakina.

Testua osatu behar izateak eduki linguistiko soiletatik harago eramango du ikaslea. Eta helburua kontuan harturik, mezuan eragina izan dezaketen erabakiak hartzen jarriko du: nola hasi, zein hurrenkera eman, espazioa nola antolatu, ideiak nola lotu, nola amaitu... Horretarako, ereduak eskaini beharko dizkiogu, zeri erreparatu behar dion erakutsi, eta testua antolatzeko irizpideak eman. Ondoren, ikasleak berak hartuko ditu egokien iruditzen zaizkion erabakiak bere testua osatzeko.

Aurreko guztiak irakasleoi ikusarazten digu geuk ere erabakiak hartu beharrean gaudela. Eginkizun horiek ondo gauzatzeko, aurrez ikusi behar genuke ikasleak zeren beharra izan dezakeen, eta behar dituen baliabide horiek ikaslearen eskura jarri. Horrek eramango gaitu, beharbada, geure artean ohikoak izan diren zenbait eduki baztertzera edo beste eginkizun baterako uztera, eta beste bitarteko batzuk erabiltzera edo hobestera. Edukiak funtzioaren bat izan behar du ikas-prozesuan, ekintza komunikatiboak erakutsiko digu bidea eta hor txertatuko ditugu edukiak, linguistikoak zein testualak.

A1 mailan ari gara; baina geure kurrikulua ekintza komunikatiboaren gainean eraiki nahi badugu, mailaz maila osatu beharko genuke ekintza komunikatiboaren zerrenda. Gainera, ikaslearen parte hartzea eta inplikazioa indartzeko aldera, berak ere parte har lezake, bere ingurunetik abiatuta, bere ekintza komunikatiboak zein diren zehazten. Horrela, neurri batean, bat egingo genuke ikasleak ikas-prozesuaren ardatza izan behar duela dioen baieztapenarekin; hainbatetan errepikatua eta oraindik erabat geureganatua ez dugun ideia.

Lehen esan bezala, hausnarketa hori abian dago, eta geure kurrikuluan jasotzeko bidean ari gara. Kurrikuluan egindako ekarpenok aurrez aurreko saioetan ibilian jarri nahian gabiltza; azken batean, hausnarketa horien ondorioak gure jardunaren ardatz izan daitezten nahi dugu, eta beren gainean gorpuztu geure praktika. Baina ez luke soilik aurrez aurreko eskola-saioetarako oinarria izan beharko, autoikaskuntzaren gaineko gogoetak kurrikuluaren bitartez ere bideratu beharko genituzke. Oinarriak berberak dira, bitartekoa baino ez da aldatzen.

Lan honetan, honako galdera honi erantzun nahiko genioke: geure autoikaskuntza-zerbitzua hobetu nahi badugu, zein bidetatik jo behar du geure hausnarketak?

Ez genuke beste behin ere autoikaskuntza kanpoan utzi nahi. Euskaltegiaren eskaintza osotasunean ikusi behar da; denari dagokio didaktika, ez alderdi bati bakarrik. Urratsak egin behar ditugu bide horretan, autoikaskuntza gure eskemetan sartzen.

BOGA osatu

Zer eskaini behar du autoikaskuntza-zerbitzuak? Zer eskaintzen ari gara? Non gauden aztertu, eta nora joan nahi dugun erabakitzeko unea dugu honako hau. Errealistak izanda, zer daukagun ere kontuan hartu beharrean gaude; baina ausartuko ote gara bidegurutze horretan zirt edo zart egiten?; hau da, guk integratu behar dugu BOGA n ala BOGAk integratu behar du gure jardunean? Nire ustez, bigarrenaren aldeko hautua egin beharra daukagu; aurrera egingo badugu, bederen.

Geure euskaltegian hizkuntzak ikasteko zenbait printzipio eta oinarri adostu ditugu. Beraz, irakaskuntza-prozesu guztia iritzi horien gainean gauzatu beharko genuke. Hala egiten badugu, eta zeregin horretan asmatzen badugu, oinarri horiek sendotu eta finkatu egingo dira. Horrek eskatuko digu autoikaskuntzan ere Beasaingo Udal Euskaltegiaren ikuspegia zein den erakustea.

Has gaitzen, lehenengo, BOGAk duen ikuspegi gramatikala indargabetzen, eta geurea gaineratzen eta bistaratzen. Has gaitzen ikuspegi komunikatiboa eransten autoikaskuntzari. Nola? Horixe gogoeta honek argitu nahiko lukeena; beti ere, Beasaingo Udal euskaltegitik egina dela kontuan izanda, gure errealitateari abiatua.

Gaur egun, gure errealitateari begira jarriz gero, BOGA dugu baliabiderik nagusiena autoikaskuntzan. Daukaguna hobetu nahi badugu, ordea, oinarriak berak ere ondo aztertu beharko ditugu. Darabilgun materiala berrikustea baino gehiago eskatuko digu ahalegin horrek, daukagun printzipioak berraztertu eta jarreretan eragin ere egin beharko baitugu.

Beharbada, denetan zailena jarrera aldatzea gertatuko zaigu. Baina gure jarrera-aldaketak akuilatuko du ikaslearena. Besteak beste, ikaslea hizkuntzaren erabiltzaile bihurtzea lortu nahi badugu, jarrera hori ikasleengan pizten asmatu behar dugu, ikasle aktiboagoak sortzen, ikasle bere-

gainak eta kontzienteagoak hezten. Horrek, nola ez, irakaslearen jarrera izango du abiapuntu eta pizgarri.

Jarrera-aldatzeari gagozkiolarik, ikas-prozesuan izan dezakeen eraginaz gogoeta egin beharko genuke. Esaterako, ematen du badagoela beldurra- ren antzeko sentimendua gaitasun gramatikaetik gaitasun komunikatibo- rako jauzia proposatzen dugunean. Badirudi ezen ikuspegi gramatikalak edo formalak helduleku sendoagoa eskaintzen digula, geure burua segu- ruago ikusten dugula, ikaslea bera kate motzean helduta gure kontrolpean dagoelako-edo. Baina jarrera horrek ikasleari baino irakasleari egiten dio mesede, inori mesede egitekotan.

Bertigo hori uxatzen asmatu behar dugu. Jarrera-aldaketa hori aurrez au- rreko eskola-saioretan ikusten ari gara, nahiz eta kontuan hartu behar den zenbaitetan iruditzen zaigula gure kulturaren aurka ari garela, gu denok eskolan beste kultura batean hezi gintuztelako.

Gainera, jarrera hori ikas-prozesuaren lehen urratsetatik garatu eta bultzatu behar da, jasotako heziketa-molde horri aurre egiteko modu bakarra baita. Beste horrenbeste egin beharko genuke autoikaskuntzan; ikuspegiaren aldatzea bultzatu beharra daukagu, derrigor.

A1 mailatik atera gabe –BOGAko 1a eta 1b ikastaroei dagokiena gutxi gorabehera–, lehenik, hasi beharko genuke helburuak zehazten, zer lortu nahi dugun argi ikusten. Helburu horiek ikuspegi komunikatiboa oinarri hartuta zerrendatuko ditugu; beraz, zein ekintza komunikatibo gauzatzeko izan beharko du gai ikasleak? Horretarako, lehen aurrez aurrekoetarako zerrendatutako helburu berberak erabil ditzakegu. Aurrez aurreko ikas- lea izan zein autoikaskuntzakoa izan, ez dago helburuak zertan aldaturik, ibilbidea izango da desberdina; helmuga berbera, ordea.

Helburu komunikatiboetan ardaztutako zerrenda horrek bere esparruan lekutzen lagundu diezaiokie ikasleari eta baita irakasleari ere; uste baitut hori dela BOGAk duen hutsuneetariko bat: transmititzen duen ikuspe- gi gramatikalak bigarren maila batean uzten du ikuspegi komunikatiboa, ezkutuan, alegia.

Gure lanak izan behar du ikuspegi komunikatibo hori lehen lerrora ekartzea, ikaslea konturatu dadila zerk duen garrantzia, hizkuntza jakiteak zer esan nahi duen; hots, hizkuntza horrekin zer egiteko gai den. Hizkuntzaren bitar- tez gauzak egiten, komunikatzen, jarri behar dugu ikaslea.

Horrek irakasleoi ere lagundu beharko liguke ikasleekin proposatzen di- tugun saioek zertan oinarritu beharko luketen ikusarazten, bai mintza- saioetan, bai material osagarria proposatzen diegunean eta bai, noski, tutoretzetan ere. Hala, aurkeztuko ditugun jarduerak helburua definituta izateak lagunduko digu bitartekoak zeintzuk izango diren erabakitzen.

Gaur egun, gainera, teknologia berrien ahalak handiak dira; eta gure hel- buruetara iristeko zein bitarteko erabili nahi dugun erabakitzen badugu, teknologia berriek ahalbidetuko dute asmo horiek gauzatzea. Bitartekoak diseinatzeko irizpideak beharko ditugu.

Hona hemen, segidan, zenbait zuin; hurrenkerak ez du garrantziarekin zerikusirik; denak baitira maila berean inportante.

Erabilera HEOK dokumentuak proposatzen digun ikuspegi eta norabide-aldaketetako bat erabilerari dagokio: ezagutzatik erabilerarako aldaketa, hain zuzen ere. Norabide berriak eskatzen digu ezagutzari begiratu ordeztu erabilerari begiratzea. Azken batean, ikas-prozesuaren helburua da hizkuntza erabiltzea eta erabiltzen ikastea. Argi badugu hori dela lortu nahi duguna, gure bitartekoak horra begira jarri beharko ditugu, eta horri erreparatu. Helburu horretara iristeko zer beharko nuke? Ahalegindu beharko dugu prozedurak helburuarekin koherenteak izan daitezen, eta, hein berean, baita metodologiak ere.

Aukera ere eman behar diegu ikasleei proposatzen dizkiegun jardueren bitartez barneratzen ari diren hizkuntza praktikan jartzeko, bereganatzen ari den gaitasun horiek erakusteko, alegia. Batez ere, ikasleak bere buruari erakutsi diezaion zer egiteko gai den hizkuntza erabiliz. Horretarako, ekintza komunikatiboen kontzeptua oso lagungarria zaigu. Gainera, ikaslea bere eguneroko testuinguruan identifika ditzakeen ekintza komunikatiboetan trebatzea lorpen handia izango litzateke, batez ere, ikaslearen beraren ikuspuntutik begirata. Horretan trebatzeko aukera eskaini behar diegu ikasleei. Hizkuntzaren bitartez gauzak egiten trebatu; horrek, zalantzarik gabe, aldeko eragina izango du ikaslearengan, eta baita ikas-prozesuan ere.

Gainera, behin eta berriro ari gara errepikatzen ikasleak izan behar duela ikas-prozesuaren ardatza. Horrela lor dezakegu ikaslea protagonista sentitzea, baldin eta bere beharretatik abiatuta ikusten badu bere burua gai dela komunikazio-egoera errealean, edo ahalik eta errealean, moldatzeko.

Autoikaskuntzan, BOGAk eskaintzen ez dituen prozedura horiek eskaini behar ditugu. Komunikazioan ardaztutako zereginetan pentsatu behar dugu. Bakarkako jarduerak ez ezik elkarrengana ere bultzatu beharko dugu, modu aktiboan parte hartzen trebatu daitezen. Jarduera horiek eredu gisa erabil ditzakete ikasleek; ondoren, kalean, aurki dezaketen bidearen erakusgarri.

Behar besteko praktika ikas-prozesuaren lagungarri bilakatuko zaigu. Azken batean, bizitza errealean egoki moldatuko diren hizkuntzaren erabiltzaileak lortu nahi baditugu, hizkuntzaren erabiltzaile izaten irakatsi beharko diegu ikasleari, bide hori nola urratzen den.

Testuingurua BOGAk eskaintzen dituen testuak, bai idatziak eta bai ahozkoak, egoera jakin batzuen inguruan eraikitakoak dira, baina onartu beharra dago horietako asko urruti geratzen zaizkiola ikasleari. Egia da horrelako programen inbertsonalak izan behar dutela derrigorrean, guztientzat baliagarri eta erabilgarri izateko pentsatuak baitaude. Arlo horretan egin dezakegu

geure ekarpena, guk errazago baitugu gertukoagoa izango dituzten jarduerak proposatzea, geure ikaslearen ingurua beste inork baino hobeto ezagutzen dugu-eta.

Gure kasuan ere horrek mugak izango ditu; baina, hala ere, dudarik ez dut BOGAk proposatutakoa baino hurrekoagoa gertatuko zaiela. Hori dena lagungarri izan dakiguke euskaltegioi, hurbiltasunaren balio erantsi hori eskaini baitezakegu. Kontuan hartu behar dugu garrantzi handiko faktorea izan daitekeela guretzat. Eta ez legoke gaizki horri etekina ateratzen asmatzea; batez ere, gure indarguneetariko bat izan daitekeelako, eta gure lekua aurkitzen eta sendotzen lagundu diezagukeelako.

Eta testuak sortzeko BOGAk proposatzen dituen jarduerari dagokienez, nire ustean, ikasleak euskarri sendoagoak eta eraginkorrakoak beharko lituzke eginkizun horiek egoki garatu eta gauzatu ahal izateko.

Esan nahi dudana erakusteko nahi adina adibide aurki ditzakegu BOGAN. Ohar gaitezen zerbait komunikatzeko eratzen dugula testua. Beraz, horrek ezinbestean eskatuko digu, ezertan hasi aurretik, testu horrek zein testuinguru eta zein helburu dituen ikasleari jakinaraztea edo ikaslearekin adostea.

Testua ekintza komunikatiboaren gauzatzea dela kontuan hartuta, ekintza komunikatibo horren osagaiak zein diren zehaztuta izan beharko lituzke ikasleak, testuingurua identifikatzen lagunduko dio-eta. Bestela esanda, esanahiz jantzi bageneza ikasleari eskaintzen eta eskatzen dioguna, zentzua ematen ariko gintzaizkioke ikasten ari denari.

Honelako galderak ere egin behar dizkiogu geure buruari: ikasten edo irakasten ari naizenak badu zentzurik?

Ez genuke ahaztu beharko komunikazioa beti esanahiaren gainean eraiki ohi dugula. Eta horrekin loturik, azpimarratu beharko genuke, ikas- eta irakas-prozesuak esanahia eraikitzen bideratu beharko genituzkeela. Hala, ikaslea mezuari eta esanahiari erreparatzera ohituko litzateke.

Helburu horretara iritsiko bagara, ikasleari aurkezten diogun lan-proposamena esanahian oinarritu behar dugu, bide hori eginez ikasiko du komunikatzaile izaten. Gainera, ikaslearen jarreraren ere eragin genezake horrela.

Komunikazioari lehenetsuna ematen dion ikasleak beste jarrera bat izan ohi du; aktiboagoa eta parte hartzaileagoa izan ohi da ikas-prozesu osoan.

Eta urrats bat aurrera eginez, ikaslea bultzatu behar dugu egin behar dituen jarduerari zentzu pertsonala ematera, bere errealitatera hurbiltzera eta ahal den neurrian jardueraren buru-belarri murgiltzera, hau da, eginkizuna bere egin, eta, lan-metodoak izan ditzakeen mugak ahaztu gabe, ahalik eta testurik errealena sortzea xede izan. Horretarako, ikaslearen ingurunetik gertu dauden atazak edo sekuentzia didaktikoak planteatu beharko genituzke.

Azken batean, irakaskuntza egokia eskaini nahi badugu, prozesu guztia- ren testuinguruak ere, ahal dugun neurrian, egokia izan behar du; testuingururik eza edo testuinguru desegokia oztopo izango dugu geure helburuak lortzeko bidean.

Motibazioa Aurreko atal biek, bai testuinguruak eta bai erabilerak, nahitaez, motibazioa aipatzera garamatzate, edozein ikas-prozesutan garrantzi handikoa eta erabakigarria den eragilea.

Hizkuntzaren bat ikastea erabaki duenaren ikas-prozesuak gorabeherak izan ohi ditu; luze egiten da askotan. Horrenbestez, ikaskuntza ernagarriagoa geratuko zaio ikasleari baldin eta jarrera aktiboa badu, proposatzen dizkiogun jarduerak esanahidunak badira, ikaslearen parte hartzea bultzatzen badugu, ikasleari bere ikas-prozesuaz jabetzeko aukera ematen badiogu, bere aurrerapauso eta oztopoen berri berak bere kabuz antzemateko gai bada... Horren denaren helburua izango da ikasleak bere ikas-prozesuan interesari eustea.

Eduki hau edo hura menperatzea baino komunikazio-egoera jakinetan ondo moldatzea sari handiagoa izan daiteke ikaslearentzat eta, hein berean, eraginkorragoa ere bai.

Gainera, baldin eta geure ikaslea hizkuntzaren edukiez jabetzera baino jarduera akademikoetatik kanpo hizkuntza erabiltzera bultzatu nahi badugu, zer esanik ez dago arlo psikologikoa landu beharra dugula; are gehiago, autoikaskuntzan bakarrik ari den ikasleak izan dezakeen bakardade-sentimendu hori gainditzen laguntzeko balio badu.

Gure ikaslea denbora mugatu baterako izan ohi da gure artean, eta ondoren, bere bidea egin behar izaten du kalean, gizartean.

Beraz, akuilu egokia izan daiteke beretzat baldin eta aukera ematen badiogu zertarako gauza den erakusteko; komunikazio-jardueretan eraginkorra dela erakusteko; ikasitakoa erabiltzeko gai dela erakusteko; hau da, ikusarazi behar diogu gai dela testuinguru jakin batean hizkuntza horri esanahia emateko.

Eta ondoren datorren puntua benetan landu nahi badugu –ikaslearen autonomiaz ari naiz– motibazioa oso kontuan hartu beharreko faktorea dugu.

Hausnarketa Ikasle autonomoa gakoetako bat da ikas-prozesu guztietan, bai aurrez aurrekoetan bai *on-line* moduko irakaskuntza-ereduetan. Autonomia duen eta autonomia bilatzen duen ikasle-eredu hori bultzatu behar dugu.

Zail izaten da hasieratik horrelako ikasleak izatea; baina hezi egin behar ditugu bide horretan. Gainera, berebiziko garrantzia izango du faktore horrek ikaslea autoikaskuntzan ari bada.

Ikas-prozesuan hausnarketa bultzatzen duen metodologia hobetsi behar genuke. Hausnarketak autonomia garatzeko bidea ekarriko du. Horrek jarrera ausartagoa eskatuko digu irakasleoi; baina ez diogu beldurrik izan behar ikaslea hausnartzen jartzeari. Ikasleak ikasi egin behar du bere kabuz pentsatzen. Hala, besteak beste, ikaslea kritikoki jokatzera bultzatuko dugu. Dena dela, ikasle kritiko hori ikas-prozesua sendotuko duen ikaslea izango da, dudarik gabe.

Ez dugu ahaztu behar ikasleak inguruan dituen baliabideei ere etekina ateratzen ikasi behar duela, eta inguru euskaldun batean bizi bada, Goier-
rriñ adibidez, ikaslearen jarrerak eragin handia izan dezakeela prozesuan.

Bestetik, jarrera-aldaketa horrek ikaslea erabakiak hartzera bultzatuko du. Autoikaskuntzaren kasuan, ordea, erabakiak hartzeko ahalmena ga-
ratzea ezinbestekoa dugu.

Ikasleak etengabe ibili behar du erabakiak hartzen. Horretarako, irizpideak beharko ditu eta bere buruan konfiantza. Ikaslea prozesuaren hasieratik hezi behar dugu horretan; beharbada, ez du beti asmatuko, hala behar duelako; baina jarrera hori erabakigarria izango da ikas-prozesua azkartzeko. Ikasle irizpidedunak arrakastarako bidea errazago aurkituko du.

Ikaskuntzaren helburuetariko bat izango da komunikazio-egoeretan har-
rremanak egoki kudeatuko dituen ikaslea, erabaki egokiak hartuko dituen ikaslea. Ahalmen hori garatu dezan nahi badugu; trebatu egin behar dugu ikaslea uneoro erabaki egokiak hartzeko gauza izan dadin, biderik ego-
kiena zein den antzemateko gai izan dadin. Horretarako, ikasteko estrate-
giak landu behar ditugu, ikasten ere ikasi behar baitu ikasleak.

Helduekin lanean ari garela kontuan harturik, ikaskuntza kontzientea be-
zalako kontzeptuak garatzeak ohikoagoa izan beharko luke. Beraz, es-
trategiak lantzeko jarduerak sistematikoki gure lan-proposamenetan txer-
tatzea ez da hain ideia burugabea; zer esanik ez, autoikaskuntzan.

Materiala Ikas-materialak didaktikaren gainean hartutako erabakien isla izango dira. Materiala sortzen lan egin duenaren erabakiak agerian uzten ditu, zein diren bere bideak eta aukerak.

BOGAn proposamen lineala eta itxia aurkituko dugu. Mekanikoki egin be-
harreko ariketa askoren aurrean izango da ikaslea, eta erantzun beharreko galdera aukeratzea baino ez du egin beharko. Eta sortzea eskatzen zaione-
tan, testuingurua behar hainbat zehaztu gabe sortzeko eskatuko zaio.

Badakit zaila dela denontzako baliagarria izango den sistema egokia pro-
posatzea; baina, aurrez aurrekoetan egin bezala, bada ordua urrats bat aurrera egiteko autoikaskuntzan ere, didaktika-arloan batez ere.

BOGaren bitartez ikasleak jasotzen duena eta guk ikasleari transmititu nahi geniokeena bat ez badatoz, zein dira gure aukeraketak ekarriko di-
tuen ondorioak? Zein mezu helarazi nahi genioke geure ikasleei?

Aurreko puntuetan esandakoaren bidetik, gure helburua erabilera bada, ikaslea autonomia izatea bada, hizkuntza horren gainean esanahia erai-
kiko duen ikaslea hezteka bada... erabakiak hartzen hastea dagokigu.

Aurreko guztiaren gainean egindako hausnarketaren emaitza izango dugu ikasleari aurkeztuko diogun materiala. Aurrez aurreko klaseetan egin be-
zala, aukera guztien artetik, bide jakin baten aldeko hautua egin dugu, eta horretarako, beste zenbait aukerari muzin egin diegu.

Beste horrenbeste nahi genuke autoikaskuntzarako. Gure baliabideak zein diren aintzat harturik, ikasleari emango dizkiogun eginkizunetan gure aukerak islatzen saiatuko gara, ez dugu zertan uzkur jokaturik gure aukeren printzipioak agerian uzteko.

Guk eskaintzen diogun material horretan aurkitu behar du ikasleak bere ibilbiderako oinarria. Materialean bitarteko egokiak eskaini behar ditugu:

- Ekintza komunikatibo bakoitzak pakete bat osatuko du. Hala ere, horrek ez du esan nahi pakete horien arteko loturarik egin ezin denik, lan egiteko modu bat zehaztu nahi genuke, besterik gabe.
- Ekintza komunikatiboak ahoz zein idatziz lantzekoak izango dira. Pakete bakoitzak helburua zehaztuta izango du, proiektu komunikatiboak dei dezakeguna. Proposatutakoak baliagarri izan behar du ikaslearen ikas-prozesuan.
- Zein testuingurutan lan egin behar duen ere erakutsi behar zaio ikasleari. Testuinguruak gertukoa izan behar du, eta esanguratsua ere bai. Beraz, ekintza komunikatibo horren osagaiak zehaztekoan, kontuan hartuko ditugu arestian aipatutako bi faktore horiek.
- Ereduak ere aurkituko ditu ikasleak. Gero, bizitza errealeko egoeretan nola joka dezakeen erakutsiko dioten ereduak, mundu birtualetik errealerako jauzian saioak egin ditzan.
- Hausnartzera bideratuko duten jarduerak txertatu behar dira, erabakiak hartzera bultzatu. Garrantzi handikoa da ikaslea ohartzea autonomia izaten ikasi behar duela.
- Zer egiteko gai den erakusteko aukera eman behar zaio ikasleari. Erabilerak motibazioa areagotuko du.
- Eduki linguistikoak eta testualak bitartekoak izango dira. Azken emaitza testua osatzea izango dugu, beheerenero mailatik hasita. Testuan jarri behar du ikasleak arreta, baita irakasleak berak ere.

Lan handia datorkigu, beraz. Erabakiak hartzeko unea heldu zaigu.

Prozesua laburtu

Ekintza komunikatiboetan ardaztea ez da moda kontua. Bide hori hobetsita, ikas-prozesua bera sendotu eta azkartu nahi genuke. Nire irudipena izan daiteke; baina BOGAk proposatutako ariketa guztiak banan-banan eginez gero prozesuak luze joko luke; motela irizten diot BOGAri.

Ekintzaz bete behar dugu autoikaskuntzan diharduen ikaslearen jarduna, eta ariketa mekanikoen *continuum* horretatik atera. Hizkuntzaren bitartez egin daitezkeen ekintzak eskaini behar dizkiogu ikasleari, eta ekintza horiek gauzatzeko aukera eskaini, bai ahoz eta bai idatziz. Gainera, BOGAren bitartez, ikasleak alde bakarreko informazioa jasotzen ikasten du; ikasle pasiboaren eredu bultzatzen ari gara horrela. Horren kontra, ikasle aktiboa interesatzen zaigu, parte hartzaileagoa, hizkuntzarekin saiakuntzak egiteari beldurrik ez diona.

Ikasle ekintzailea nahi dugu, behar dugu, bere ikaskuntzaren gainean pentsatzen dakiena. Bide horri ekinez gero, ikaslea erabakitzen jartzeko aukera handiagoa izango dugu, nahiz eta horrek izan dezakeen eragina aurrez ikustea zaila izan daitekeen.

Esaterako, ikasleak erabaki dezake BOGA-n dauden zenbait jarduera bazter uztea. Baina horrek adieraziko liguke ikasleak bere ikas-prozesuaren jabe egin nahi duela, zer nahi duen erabakitzen hasi dela, eta ez BOGA-k erabakitakoaren ildoari jarraitu.

Ekintza komunikatiboaren bidea aukeratzen badu, ziur aurrerapausoak azkarrago egingo dituela.

Puntu honetara iritsita, irakasleak berak ere erlatibizatu egin behar du BOGA-n garrantzia, eta ondorioz logikoena izango litzateke BOGA-n erabilera bera ere, komenigarri ikusten bada, mugatzea.

Amaitzeko

Autoikaskuntzan, badira orain arte aipatu gabe utzi ditudan beste eragile batzuk; gure ahalmenetik kanpo geratzen baitira. Hala ere, uste dut horren gaineko gogoeta beharrezkoa dela. Besteak beste, kontuan hartzeko moduko iritzia izan dezakegu autoikaskuntzan daukagun moduluaren gainean.

Gure irakaskuntza-eredua eraginkorragoa izatea nahi badugu, beste eredu batzuetan pentsatzea ez litzateke bidegabekeria izango. Gaur egun dugun moduluak malgutu daitekeelakoan nago. Besteak beste, zergatik jarraitu behar diote eredu berberari A1 mailarako eta 3. mailarako proposatzen diren ikasketa-moduluek? Edo, erabileran indar gehiago jarri nahi badugu, zergatik ez eskaini mintzasaio gehiago? Eta, tutoretzak izan dezakeen garrantzia onarturik, zergatik ez aurreikusi saio gehiago, adibidez, beheko mailetan?

Gure artean, autoikaskuntzaren arloan, esperientzia interesgarrietan lanean dabilen irakasle franko ditugu. Esperientzia horietatik ondorio emankorrak atera ditzakegu, aplikagarriak.

Bestetik, moduluen gaiarekin loturik, modulu mistoa ere hor dugu; orain artean definitu gabe daukaguna. Baina mereziko luke horren inguruko saioak aztertzea, maiz entzun dugu-eta etorkizunean horrelako moduluak ohikoak izango direla.

Mintzasaioek ere aparteko azterketa mereziko lukete. Nola planteatu beharko genituzke mintzasaioak ikaslea erabiltzaile izateko bidean? Eta zer esanik ez, gero eta garrantzi handiago hartzen ari diren tutoretzei bagazozkie. Hor ere badugu zeregina.

Hala ere, arlo positiboa ere aipatu nahi nuke. Uste baitut ez legokeela arazorik didaktikaren ikuspegi berritzaileak teknologia berriekin uztartzeko. Ikasleekin nola lan egin nahi dugun erabakitzen badugu, asmatuko dugu hori ahalbidetuko duten bitartekoak eraikitzen.

Lan honen asmoa izan da, gure esperientziatik abiatu, bide egokia zein izan daitekeen iradokitzea. Hausnartzeko zenbait puntu aurkeztu nahi izan ditut, kezka batzuk plazaratu.

Autoikaskuntza-sistema eraginkorragoa bideratuko luketen erabakiak zein norabide hartu beharko lukeen agertzen saiatu naiz, irakaskuntzan dihardutenek aintzat hartuko dituztelakoan. Izan ere, gure lana, beste edozein jakintza-arlo bezala, hain esparru zabala da, ez baita erraza ikuspegi osoa izatea. Horrek aberastu egiten du gure jarduna; izan ere, asko baitugu eztabaidatzeko, lantzeko, arakatzeko; hitz batean, ikasteko.

Bibliografia

- Elosegi, L eta Esnal, P.** 2005. Ekintza komunikatiboa *Hizpide* 57.
- Europako kontseilua.** 2002. *Erreferentzi Marko Europar Bateratua. Hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako. HABE*
- HABE.** 1999. *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua.*
- Txabarri, L. M.** 2007. IKTetan oinarritutako hezkuntza. *Hizpide* 64.
- Txabarri, L. M.** *IKTetan oinarritutako hezkuntza (II)*, HIZPIDE.
- Urriz, J.** 2009. *Ekintza komunikatiboa (eta II)*, HIZPIDE 72.